Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6690

AGINDUA, 2009ko abenduaren 2koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2009-2010 ikasturteko Urruzuno literatura-lehiaketarako dei egiten duena.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan ikasten ari diren gazteen artean euskara sustatzeko tresna baliagarria dela uste du literatura-sorkuntza lana. Hori dela eta, literatura-lehiaketa honetarako deialdia egiten da ikasmaila horietako gazteek euskera erabiltzeko pizgarri eta bultzagarri gisa hartu eta euskara bere gogoeta eta sentimenduak adierazteko tresna moduan landu dezaten, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Urruzuno literatura-lehiaketarako deialdia onartzea, agindu honen eranskinean zehazten diren oinarri-arauekin bat etorriz.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espedienteen aurretiko izapidetzea araupetzen duen Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren ondorioetarako, agindu honetako dirulaguntzei buruzko ebazpena emateko garaian, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2010. urteko aurrekontu orokorretan kreditu egoki eta nahikoa egotea edo ez egotearen mende geratuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Oinarri-arauek jardunbide kontuan begiz jo gabeko orotarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak dioena hartuko da oinarri.

Bigarrena.– Bide administratiboa agortzen duen agindu honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jar liteke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenean,

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6690

ORDEN de 2 de diciembre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca el concurso literario Urruzuno para el curso 2009-2010.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco considera que la labor de creación literaria puede ser un valioso instrumento para la promoción del euskera entre los jóvenes que cursan estudios en Centros de Educación Secundaria. En consecuencia, se convoca este concurso literario, con el fin de que sirva a los jóvenes de los niveles educativos mencionados como incentivo en la utilización de dicha lengua, valiéndose de ella como instrumento para la expresión de sus reflexiones y sentimientos. En su virtud,

RESUELVO:

Artículo único.– Aprobar la convocatoria del concurso literario Urruzuno, de conformidad con las bases que figuran como anexo a la presente Orden.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

A los efectos contemplados en la Orden de 26 de abril de 2007, del Departamento de Hacienda y Administración Pública, sobre tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Resolución de concesión de las ayudas de la presente Orden queda supeditada a la existencia de crédito adecuado y suficiente para el ejercicio 2010.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todo lo no previsto por las bases en materia de procedimiento será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición, ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV. Así mismo, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala correspondiente del Tribu-

dagokion aretoan, esandako egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hirugarrena.– Agindu hau EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 2a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

I. ERANSKINA

OINARRI-ARAUAK

1.– Bigarren Hezkuntzako 2010eko Urruzuno literatura-lehiaketarako deia egiten da. Deialdi honen zenbatekoak ezin izango du 50.000 euroko kopurua gainditu.

2.– Deialdi honetan 2009-2010 ikasturtean Bigarren Hezkuntzan diharduten eta hurrengo ataletan zehazten diren mailetako ikasleek soilik hartu ahal izango dute parte.

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso duten, eta horren ondorioz, diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu duten edo horretarako ezgaitzen duen lege-debeku baten eraginpean dauden erakundeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko lege-debekuak barne, ezin izango dira agindu honetan araututako lehiaketara aurkeztu zigorrak ezarritako aldian.

3.– Ikasle horien artean bi kategoria bereziko dira: B gaztetxoentzat (DBHko 3. eta 4. mailak) eta A gazteentzat (Batxilergoetako 1. eta 2. mailak edo Erdi Mailako Heziketa Zikloak).

4.– Literatura-lanek orijinalak, aurrez saritugabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izan behar dute, nahiz prosaz nahiz poesiaz, bertso paperak barne, betiere Euskaltzaindiak onartuta dauzkan ortografia eta gramatika arauak betez; bestelako literatura-saririk irabazi gabeak izan behar dute. Gaia librea izango da.

5.– Egileak lanaren paperezko alea eta ordenadore-disketea edo CDa aurkeztu behar ditu. Lan hauek «Times New Roman 12» edo «Arial 10» letra tipoa gutxienezko erreferentzia izango dute neurriari dagokionean. Lehen orrialdean soilik lanaren izenburua, egilearen izengoitia, arloa eta kategoria jarriko dira, dena ere letra larriz, egilea nor den ager lezakeen aztarrenik gabe. Lanarekin batera eta gainean izengoiti bera beste ezer ez daukan sobre itxi baten barruan erantsita doan parte hartze orria (II. eranskina) bidali behar da.

nal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir de la fecha señalada.

Tercera.– La presente Orden surtirá efecto al día siguiente de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de diciembre de 2009.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

ANEXO I

BASES REGULADORAS

1.– Se convoca el concurso literario Urruzuno de Enseñanza Secundaria para 2010. El gasto de la convocatoria no superará la cantidad de 50.000 euros.

2.– Podrán tomar parte en este Concurso los/las alumnos/as que durante el curso 2009-2010 estén cursando estudios de Educación Secundaria en los niveles indicados a continuación.

No podrán concurrir a las ayudas reguladas por la presente Orden quienes se hallen incursos en alguna de las causas establecidas en el apartado 5 del artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, modificado por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. A este respecto, los solicitantes deberán presentar una declaración jurada en la que certifiquen que no se encuentran en ninguna de las causas descritas en el citado artículo.

3.– Se establecen dos categorías: B para cadetes (3.º y 4.º de ESO) y A para jóvenes (1.º y 2.º de Bachiller y Ciclos Formativos de Grado Medio).

4.– Los trabajos literarios deben ser originales, no publicados con anterioridad, escritos originalmente en euskera, bien en prosa o bien en poesía, incluidos los «bertso paperak»; deberán respetar en todo caso las normas ortográficas y gramaticales aprobadas por Euskaltzaindia, y no podrán haber sido premiados con anterioridad en ningún otro certamen literario. El tema será de libre elección.

5.– Se enviará un ejemplar del trabajo en papel y otro en disquete o CD. Para estos trabajos se utilizará como referencia los tipos de letra «Times New Roman 12» o «Arial 10» en cuanto a la medida se refiere. En la primera página únicamente constará el título del trabajo, el seudónimo del/a autor/a, la modalidad y la categoría, todo ello en letra mayúscula, de forma que no pueda identificarse al autor/a. Se adjuntará un sobre cerrado en el que solamente figure visible el seudónimo y llevará en su interior la Hoja de Participación (anexo II).

6.– Lanen neurriak hauek izango dira:

Prosa:

– B kategoria: 4.000-12.000 karaktere, 1,5eko lerroartearekin (2 eta 6 orrialde bitartean 12ko hizkiarekin).

– A kategoria: 5.000-15.000 karaktere, 1,5eko lerroartearekin (3 eta 8 orrialde bitartean 12ko hizkiarekin).

Poesia:

– B kategoria: gutxienez 50 lerro (olerki bat baino gehiagoz osa daitezke).

– A kategoria: gutxienez 75 lerro (olerki bat baino gehiagoz osa daitezke).

7.– Ikastetxe berean lehiaketan parte hartu nahi duen ikasle kopuru handia egonez gero, ikastetxeko bertako literatura-irakasle edo departamentuak aurreaukeraketa egin eta onenak bidaltzea komeni da.

8.– Guztira 20 sari izango dira, kategoria bakoitzean 10: 5 prosa lanik onenentzat eta 5 poesia lanik onenentzat.

9.– Sari bakoitzak honako hauek izango ditu barne: urtearen bigarren seihilekoan egingo den bidaiaegonaldia, bidaiako norbere gastuetarako 300 euro eta oroigarria. Ikasle batek sari bat baino gehiago irabaztea suertatzen bada, sari bati dagokion bidaia eta bidaiako norbere gastuetarako dirua jasoko du soilik; bere aukera saririk gabe geratu den lanik onenaren egileari emango zaio.

Halaber, azken urteotan ikasleak lehiaketa honetan parte hartzera bultzatu eta lagundu dituzten ikastetxeak saritu nahian, honetan nabarmendu diren bi ikastetxek bidaia eta oroigarri bana jasoko dute. Ikastetxeek eurek izendatuko dute bidaiara joango den irakaslea.

Bidaiariek laguntzaile izango dute bidaia osoan zehar euskal idazle bat. Aukera eman nahi zaie irabazleei idazle honekin gertuko eta zuzeneko harremana izateko. Euskal Idazleen Elkartearekin elkarlanean idazle gazte hauen aurrerabiderako literatura-tutoretza bideak aztertu nahi dira.

10.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak liburu bat argitaratuko du saritutako lanen bilduma gisa, Sagastiberri sailean.

11.– Idazlana, dagokion disketea edo CDa eta parte hartzeko orria bidaltzeko epea, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik 2010eko martxoaren 3ra artekoa, egun hau barne izango da. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean aurkeztu behar dira, honako helbide honetan:

6.– Las obras tendrán la siguiente extensión:

Prosa:

– Categoría B: 4.000-12.000 caracteres, con espaciado de 1,5 (entre 2 y 6 páginas con tamaño de letra 12).

– Categoría A: 5.000-15.000 caracteres, con espaciado de 1,5 (entre 3 y 8 páginas con tamaño de letra 12).

Poesía:

– Categoría B: 50 versos como mínimo (puede constar de varias poesías).

– Categoría A: 75 versos como mínimo (puede constar de varias poesías).

7.– En el caso de que haya en el mismo centro muchos/as alumnos/as que quieran participar en el concurso literario, es conveniente que el/la profesor/a o el departamento de literatura realice una preselección, enviando solamente los mejores trabajos.

8.– Se concederá un total de 20 premios, 10 en cada categoría: 5 para los mejores trabajos en prosa y 5 para los mejores trabajos en poesía.

9.– Los premios serán los siguientes: cada premio incluye un viaje-estancia, 300 euros para gastos propios y una placa conmemorativa. En el caso de que resulten premiados más de un trabajo de un/a mismo/a alumno/a, dicho/a alumno/a sólo accederá a un viaje y a su correspondiente fondo para gastos propios, dándose opción al autor del mejor de los trabajos que no hayan resultado premiados.

Asimismo, con el ánimo de premiar a los centros que durante los últimos años han propiciado y fomentado la participación de su alumnado en este concurso, los dos centros que más se hayan destacado en esta labor percibirán un premio consistente en un viaje y una placa conmemorativa. Los mismos centros designarán al profesor que irá al viaje.

Estas personas irán acompañadas durante todo el viaje por un/a escritor/a euskaldun. De este modo se quiere ofrecer a los/as ganadores/as la oportunidad de tener un contacto cercano y directo con este/a escritor/a. En colaboración con Euskal Idazleen Elkartea se pretende estudiar la posibilidad de una futura tutoría literaria con estos/as jóvenes escritores/as.

10.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación publicará un libro de recopilación de los trabajos que resulten ganadores, dentro de la colección Sagastiberri.

11.– El plazo para el envío de el trabajo, el disket o el CD correspondiente y la hoja de inscripción comenzará el día siguiente al de la publicación de la presente Orden y finalizará el día 3 de marzo de 2010, inclusive. Deberán enviarse a la siguiente dirección:

Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila)

Euskara Zerbitzua-Urruzuno lehiaketa

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

12.– Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak dioena betez, parte hartzaileak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari baimena ematen dio, eskabidean jasotako datuak bere informatika-fitxeroetan sar ditzan. Parte-hartzaileak, datuetara sartzeko, datuak aldatzeko eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi badu, Hezkuntza Sailburuordetzara jo dezake: Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

13.– Hezkuntzako sailburuordeak idazlanak aztertu eta sariak nori eman proposatzeko epaimahaia izendatuko du. Epaimahaia sortzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.5 artikuluan agindutakoari jarraituz, bermatu egingo da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela.

14.– Idazlan onenak zein diren erabakitzeko, ondoko irizpideok izango ditu kontuan epaimahaiak:

– Idazlanaren arintasuna eta lotura.

– Hizkuntzaren erabilera zuzena eta aberastasuna.

– Sorkuntza eta irudimena.

– Testuaren ezaugarri literarioak (irudi literarioen erabilera…).

15.– Hezkuntzako sailburuordeak sarien behin betiko adjudikazioa erabaki eta deialdi hau argitaratu denetik hasi eta sei hilabeteko epean EHAAn argitaratuko du. Epe horretan erabaki espresurik ematen ez bada, parte hartzaileek ezin izango dute inola ere ulertu sarituak izan direnik. Aipaturiko epaimahaia literatura eta/edo irakaskuntzan nor diren euskal kulturaren munduko bost kidek eta Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuko bi lagunek osatuko dute.

16.– Aurkeztutako lanek epaimahaiaren ustez gutxienezko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Hala gertatzen bada, kategoria edo arlo batean eman gabe utzitako sariak beste kategoria edo arlo batean adjudikatzea erabaki dezake epaimahaiak, beste horretan saria merezi duten bost lan baino gehiago baldin badaude.

Gobierno Vasco (Departamento de Educación, Universidades e Investigación)

Servicio de Euskera-Concurso literario Urruzuno

Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

12.– En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal, se autoriza al Departamento de Educación, Universidades y Educación del Gobierno Vasco para introducir en sus ficheros informáticos los datos recogidos en la solicitud. Los concursantes, si lo desean, pueden solicitar de la Viceconsejería de Educación (calle Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz) el ejercicio de los derechos de acceso, rectificación y cancelación de datos.

13.– La Viceconsejera de Educación nombrará al tribunal que examine los trabajos presentados y proponga la adjudicación de los premios. En dicho nombramiento habrá de garantizarse la representación paritaria de hombres y mujeres con formación y capacidad suficiente, de acuerdo con el artículo 20.5 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Hombres y Mujeres.

14.– La resolución sobre los mejores trabajos se tomará de acuerdo a los siguientes criterios:

– La fluidez y la trabazón de los trabajos.

– El correcto y fluido uso de la lengua.

– La creatividad y la imaginación.

– Las características literarias del texto (uso de figuras literarias…).

15.– La Viceconsejera de Educación resolverá sobre la adjudicación definitiva de los premios, publicándolos en el BOPV en el plazo de 6 meses desde la publicación de esta convocatoria. En caso de no dictarse resolución expresa en el plazo establecido, los participantes no podrán entender en ningún caso que sus trabajos han sido premiados. El citado tribunal estará compuesto por cinco miembros del mundo de la cultura vasca con relevancia en el campo de la literatura y/o de la enseñanza y dos miembros del Servicio de Euskera del Departamento de Educación.

16.– Si a juicio del tribunal los trabajos presentados no llegan a un nivel adecuado, los premios podrán ser declarados desiertos. Si se diera este caso en alguna categoría o modalidad, el tribunal podrá adjudicar el o los premios declarados desiertos en otra categoría o modalidad, si estima que en ella existen más de cinco trabajos merecedores de premio.

II. ERANSKINA

2009-2010 ikasturtea

URRUZUNO LITERATURA LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ORRIA

LANAREN DATUAK

Arloa: Prosa ☐ Poesia ☐

Kategoria: A ☐ B ☐

Egilearen izengoitia:.....

Lanaren izenburua:.....

EGILEAREN DATUAK

Izen-abizenak:

Mutila ☐ Neska ☐

Ikasmaila: .....

Helbide elektronikoa: .....

Kalea: .....Zkia.: .....

Herria:.....PK: ..... Tf.: .....

IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxea:.....

Ikastetxearen kodea:.....

Idazlearen sinadura

.....(e)n, 2010eko .....aren ....(e)(a)n

ZINPEKO AITORMENA

Eskabide hau sinatzen duenak aitortzen du ez duela zigor- edo administrazio-arloko zigorrik jaso.